

I ERANSKINA

ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETA

LAN ESKAINTZARAKO PRESTAKUNTZA, LEHENTASUNEZ LANGILE LANDUNEI ZUZENDUA

82/2016 Dekretua

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Lehen eskola-egunean, prestakuntza-zentroak edo erakundeak prestakuntza-ekintzaren **EGUTEGIA, PROGRAMA eta "IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK"** dokumentu hau emango dizkie ikasleei.
2. **Ikasleek ezin izango dute baja hartu ikastaro batean beste prestakuntza-ekintza bat hasteko.**
3. **DOHAINIK.** Prestakuntza-ekintzak dohainik dira ikasleentzat. Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen ditu.
4. Ikasleek **ISTRIPU eta ERANTZUKIZUN ZIBILA POLIZA** bat izenpetuta dute. Poliza horrek ikastaroetara bertaratzearen eta horretarako joan-etorrien ondoriozko arriskua estaltzen du.
5. **BERTARATZEA.** Ikasleek puntualtasun osoz joan beharko dute ikastaroetara, ezarritako ordutegian. Bertaratu izana justifikatzeko, ikasleak egunero sinatu beharko du. Ez-bertaratzeak, ordukakoak nahiz egun osokoak, hartarako egiaztagiriaren bidez egiaztatuko dira.

Ikastaroetatik **KANPORATZEKO** arrazoia izango da prestakuntza-ekintzaren **iraupenaren % 25ean agertu ez izana**, dena delako arrazoiengatik, lege ez baitago azterketa egin eta gaitasuna egiaztatzerik; eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testuategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuan, Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko testuategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretuan, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuan eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean jasotako lege-ondorioak izango ditu.

Lanbidek edo prestakuntza-zentroak jasotako aprobetxamendu falta edo prestakuntza-ekintzaren jarduera oztopatzen duen jarrera ez egokia, osasungarritasun baldintza galdagarriak barne, kanporatzeko arrazoia izango dira ere bai.

Azkeneko ebaluazioko Prestakuntza-Moduluaren proban aurkeztu ahal izateko, ikasleek joan behar izango dute aipatutako **moduluko erabateko orduen % 75etan**.

Prestakuntza-zentroari edo Lanbideri jakinaraziko zaio gertatzen den gorabehera oro.

Ikastaro bat egiteko onartutako ikasleek, ikastaroa hasia izan edo ez, ezin izango dute ikastaro hori utzi beste batean izena emateko; izan ere, ikastaroa horrela uztea borondatezko bajatzat hartuko da, eta Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege-Dekretu, Arau-Hausteen gaineko Legeko eta Ordena Sozialeko Onespenetako Testuategina aplikatuko da. Ezin izango dute Lanbide-ren zerbitzu berria eskatu hark egiten ari dena ez bukatu arte.

6. **DIPLOMAK.** Prestakuntza ebaluazio positiboz gainditzen duten parte-hartzaileek LANBIDEK emandako egiaztatze DIPLOMA jasoko dute. Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza-ekintzetan gainditutako moduluen akrediazioa jasoko dute (APA, egiaztapen partzial metagarria). Ebaluazio negatiboa duten ikasleek BERTARATZE ZIURTAGIRIA jasoko dute.

7. **PRAKTIKAK.** Ikasle langabeak egin ahal izango dute enpresetan, edo Profesionaltasun-Ziurtagiriren kasuko Lantokietako Heziketa Moduluan praktika profesional ez laboralak, bai ikastaroaren errealizaziora aldi berean, bai behin ebaluazio positiboa lortu badute bera bukatuta.

Profesionaltasun-Ziurtagiri ikastaroetan zentroak aurrez ikusiko du ikasle guztientzako lantokiko heziketa praktikoko modulua, gutzinez Errege Dekretuan ezarritako iraupenarekin eta 200 orduko gehienezko iraupena izango duelarik, epea prestakuntza-ekintza amaitu zenetik aurrera lau hilabetetako izanda.

Profesionaltasun-ziurtagiriak praktiken modulutik salbuetsita egongo dira:

1. Enpleguarekin txandakatutako prestakuntzako programetako ikasleak, prestakuntza dualaren esparruan egiten diren prestakuntza eta ikaskuntzako kontratuen ondoriozko prestakuntza-ekintzei dagozkien ziurtagiria lortzeko bidean daudenak.
2. Azken bost urteotan gutxienez hiru hilabeteko eta 300 orduko lan-esperientzia egiaztatzen dutenak; esperientzia hura aipatutako profesionaltasun-ziurtagiriaren moduluan jasotako gaitasunekin bat etorri behar da. (Gizarte Segurantzaren ziurtagiriarekin eta enpresarenarekin –denbora-tartea eta garatutako jarduera adierazi beharko ditu– egiaztatuko dira, edota denbora eta jardueren inguruko erantzukizuneko adierazpenarekin, autonomoen kasuan).
3. Azken bost urteotan gutxienez hiru hilabeteko eta 500 orduko esperientzia boluntario-lanetan edo beka egiaztatzen dituztenak; horiek aipatutako profesionaltasun-ziurtagiriaren moduluan jasotako gaitasunekin bat etorri behar dira. (Erakundearen edo enpresaren ziurtagiriarekin egiaztatuko dira, non egindako jarduerak eta horiek garatu diren denbora-epea zehaztuko baitira).
4. Enpresetan praktikak egin dituztenak, horiek aipatutako profesionaltasun-ziurtagiriaren moduluan iraupenarekin eta bertan jasotako gaitasunekin bat etortzen baldin badira. (Praktiken ziurtagiriarekin egiaztatuko dira, non haien iraupena eta edukia zehaztuko baitira).

Praktiken modulutik salbuesteko eskaera egiteko prozedura, pertsona batek prestakuntza-ibilbide egiaztagarri bat osatzen duen prestakuntza-ekintza bat egiten duenean eta praktiken modulutik salbuesteko baldintzak betetzen dituztenean:

1. Parte-hartzaileak salbuespena eskatuko du, prestakuntza-zentroan dokumentazio guztia aurkeztuz.
2. Prestakuntza-zentroak LANF aplikazioan egoera hau isladatuko du, parte-hartzaileak aurkeztutako dokumentazio guztia gehituz.
3. Dokumentazio hau paperean aurkeztuko da ere bai, dagokion sarrera-erregistro batekin.
4. Lanbideko teknikariak:
 - Dokumentazioa baieztatu eta praktiken salbuespen espedientea kudeatuko du Regexlan aplikazioaren bitartez, ikasleari eskaeraren emaitzaren berri emanez.
 - Prestakuntza-zentroari emaitza jakinaraziko dio eta aplikazioan emaitza hori jasoko du.

8. PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRAREN ESKAERA. Lantokian prestakuntza-modulua behin amaituta eta gairiduta, LANF aplikazioan ziurtagiri eskaera sortuko da, ikasleak sinatu ondoren erregistroan aurkeztuko da tramitazioa egiteko.

Ikastaroak irauten duen bitartean, erakunde pribatu baten instalazioak, materialak eta zerbitzuak erabiltzen ditugu; erakunde horrek bere bizikidetzara-arauek propioak ditu, eta guk errespetatu egin behar ditugu. Behar bezala ez erabiltzeak, dagokion banako erantzukizuna eragiteaz gain, LANBIDEK esku hartuko du hori zuzentzeko.

PRESTAKUNTZA EKINTZAREN INGURUAN ZALANTZARIK EDO GORABEHERARIK IZANEZ GERO, JARRI HARREMANETAN LANBIDEKO ARDURADUNAREKIN, HONAKO DATU HAUEK ADIERAZITA:

ZENTROA ENTITATEA				
PRESTAKUNTZA EKINTZA			AF ZENBAKIA	
LANBIDE TEKNIKARIA		LANBIDE BULEGOA	TLF. ZENBAKIA E-MAIL	